



3/2018 akta

OSATEK SA SOZIETATE PUBLIKOKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUKO PRESIDENTEAK ETA KONTSEILUKIDEEK 2018KO ABUZTUAREN 6AN EGINDAKO BOZKETAREN AKTA

BOZKATU DUTEN KIDEAK: PRESIDENTEA ETA KONTSEILUKIDEA

PRESIDENTEA

Ignacio J. Berraondo Zabalegui jauna

KIDEAK

M^a Jesús Mugica Anduaga andrea
Andoni Arcelay Salazar jauna
Lide Amilibia Bergaretxe andrea
Daniel Salazar Irusta jauna
Fernando Aguirre de Miguel jauna
Susana López Altuna andrea, idazkari lanetan
Alberto Alberdi Larizgoitia jauna

Presidenteak deituta, Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bategina onesten duen Legegintzako Errege Dekretuaren (1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa) 248.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, zeinaren arabera «sozietate anonimoan, idatziz eta bilerarik gabe egindako bozketa ez da onartuko kontseilariren bat prozedura horren aurka agertzen bada», kontseilukide bakar batek ere ez duenez aurrez aurreko bilerarik egin gabe bozkatzearen aurkako jarrera adierazi, 2018ko abuztuaren 6an, Kontseiluko kide guztiei gai-zerrenda bidali ondoren, bertaratu gabeko bileraren emaitza honako hau izan da:

1.- Aurreko bilerako akta onartzea, bidezkoa bada.

Onartu egin da, parte hartu duten kide guztien aldeko botoarekin.

2.- Zuzendari kudeatzaileari Urdulizko Alberto Espinosa ospitalerako EM ekipo bat erosteko eta instalatzeko baimena ematea.

Osatekeko zuzendari kudeatzaileari Urdulizko Alberto Espinosa ospitalerako EM ekipo bat erosteko eta instalatzeko baimena eman zaio, baita instalatzeko beharrezkoak diren obrak egitekoa ere.

3.- Bilera honetako akta onartzea.

Bertaratu gabeko bilera honetako akta onartu egin da, parte hartu duten kide guztien aldeko botoarekin.



Gai gehiagorik egon ez denez gero, Administrazio Kontseiluko kide guztiek planteatutako gaiei buruz 2018ko abuztuaren 6an egindako bozketa amaitutzat eman da.

Idazkaria
Susana López Altuna

Presidentea
Iñaki Berraondo Zabalegui